



2002/05/29ko prentsa-oharra

EZKONTZEN ESTADISTIKA (EZKE)**2000. urtea**

EZKONTZAK %7,1 IGO ZIREN EUSKAL AE-N 2000AN

Ezkonberrien adina gero eta handiagoa da: 1986tik, hiru urte eta erdi igo zen senargaietan eta lau emaztegaietan

2000an, Euskal AEko biztanleen 11.384 ezkontza ospatu ziren, aurreko urtean baino 750 gehiago, Eustatek landu dituen datuen arabera. Zifra hori normala baino txikiagoa izan zen 1999an, eta horrek adierazten bide du zenbait ezkontza atzeratu egin zela, hain zuzen mende-amaierarekin batera ospatzeko.

Gure erkidegoko ezkontza-tasa (5,1 ezkontza mila biztanleko) Europar Batasuneko herrialdeen multzokoa bezalakoa (%5,1 1999an) eta Espainiako Estatukoa baino zertxobait txikiagoa (%5,3) da.

Ezkontzeko aukeratzen den hilari dagokionez, uztaila dago lehen tokian (1.937 ezkontza); haren ondoren, iraila (1.874) eta ekaina (1.449) datoz.

Ospatzeko erari dagokionez, 8.060 ezkontza katolikoak izan ziren; 3.315, soilik zibilak, eta 9 beste erlijio batzuetakoak izan ziren. Azken hamabost urteetan zehar, ikusten da ezkontza zibilen kopuruak goranzko joera izan duela: kopuru hori 1986ko %20,6tik oraingo %29,1era igo da.


Herralde historikoka, ezkontza zibil gehien Gipuzkoan ospatu da (%31,6); haren ondoren, Araban (%29,7) eta Bizkaian (%28,9); ezkontza gure erkidegotik kanpo ospatzen denean, %20ra jaisten da ehuneko hori.

Ezkonberrien ezkondu aurreko egoera zibila kontuan izanik, gizonetako ezkongabeak %94,3 izan ziren; emakumezko ezkongabeak, berriz, %94,9.

Amatasuneko adina igo egin da; baina, aldi berean, ezkonberrien adina ere igo egin da. 2000an, ezkondu ziren gizonetako ezkongabeen batez besteko adina 31,1 urtekoa izan

zen; emakumezko ezkongabeena, berriz, 29,0koa. 1986tik, senarren batez besteko adina hiru urte eta erdi igo da; emazteena, berriz, lau.


Grafikoa: ezkonberrien batez besteko adina



Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo kokatu duten 874 senar-emazteen artean, gehienek Kantabria aukeratu dute helburutzat; haren ondoren, Madril, Gaztela eta Leon, eta Nafarroa daude. Alde batzuk daude, dena dela, helburuari dagokionez, hiru herrialdeetan ospatutako ezkontzen artean: Arabakoak, nagusiki, Gaztela eta Leonera, Errioxara eta Madrilera joaten dira; Bizkaikoak, Kantabriara, Madrilera eta atzerriko herrialdeetara, eta Gipuzkoakoak, atzerriko herrialdeetara, eta haien ondoren, Nafarroara eta Madrilera.

Ezkonberrien lurralde-jatorriari dagokionez, ezkontzen %62,4 gure erkidegoko udalerrri bereko biztanleen artean ospatu ziren; %10,9, berriz, udalerrri mugakideetan bizi ziren.

Argibide gehiagorako, deitu hona:

	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Javier San Vicente Tel:+34-945-01 75 36 Fax:+34-945-01 75 01
	Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es